



C E S

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Consejo Económico
y Social Vasco

BEHIN-BEHINEKO ESLEIPENAREN EBAZPENA

“EAEn Energia Berriztagarrien garapena” Azterlanaren kontratazioa

AURREKARIAK

I.- “EAEn Energia berriztagarrien garapena”ri buruzko azterlana kontratatzeko lizitazio-prozesua Euskadiko EGBren kontrataziorako Barne Jarraibideetan ezarritako “Prozedura Irekia”ren bidez egin da.

II.- 2009ko urriaren 14ean Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean kontratazio-prozedura gauzatzeko deialdiaren iragarkia argitaratu da, eta berehala EGABren webaren (www.cesvasco.es) kontratatzailearen profilean administrazio-klausulen eta manu teknikoen agiri egokia argitaratuko da.

III.- Ondore horretarako egiletsitako epearen barruan jarraian adierazitako bederatzi enpresek proposamenak aurkeztu zituzten: “Garrigues Medioambiente”, “Prysmas Calidad y Medioambiente”, “Everis Spain”, “Deloitte”, “Efirenova”, “B+I Strategy”, “Naider y Fundación Labein”, “LKS” eta “Tamoin Energías Renovables”.

IV.- Aipatutako lizitatzailerik guztiek baldintzen agirian eskatutako gaitasun- eta kaudimen-betekizunak biltzen dituzte, eta, horrenbestez, eskaintza guztiak onartu eta baloratu dira.

V.- Kontratazio-organoak proposamen guztiak administrazio-klausulen eta manu teknikoen agiriaren 8. puntuaren ezarritako balorazio-irizpideen arabera aztertu ondoren, baloraziorik hoberena “**TAMOIN ENERGÍAS RENOVABLES**” aurkeztu duen eskaintzak jaso du, 95.000 (laurogeita hamabost mila) euroko zenbatekoarekin, BEZa barnean hartu gabe.



C E S

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Consejo Económico
y Social Vasco

BEHIN-BEHINEKO ESLEIPENAREN EBAZPENA

Aurreko guztia gorabehera, Euskadiko EGBren Batzorde Iraunkorrek 2010eko otsailaren 3an egindako bileran, Erakundearen buruak hala proposatuta, ondokoa onetsi du:

Lehenengoa: "EAEn Energia berriztagarrien garapena"ri buruzko azterlana egiteko kontratua **TAMOIN ENERGÍAS RENOVABLES**ari behin-behinean esleitzea, 95.000 (laurogeita hamabost mila) euroko zenbatekoarekin, gehi BEZaren %16.

Bigarrena: Behin-behineko adjudikaziodunari behin betiko esleipena egin aurretik, 5 egun balioduneko epean, ebazpen hau EGABren kontratatzailearen profilean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatuta, betiere aurkeztu ez bada, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztea.

Hirugarrena: Ebazpen hau prozedura honetan parte hartu duten bederatziz lizitatzzaileei jakinaraziko zaie, eta Erakunde honen kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Bilbon, 2010eko otsailaren 4an



José Luis Ruiz García jn.

Euskadiko EGABren lehendakaria